

PROTOKOLO PROPOSAMENA,
LEGEGINTZA-ESKUMENAK DITUZTEN ESKUALDE ETA
NAZIONALITATE-KONSTITUZIONALEI BURUZKOA





TRATATUGILE GORENOK,

HONAKO HAU LORTU NAHIRIK: Euren Estatu kideen konstituzio-ordenamenduen arabera legegintza-eskumenak dituzten Eskualde eta Nazionalitateek euren konstituzio-botereak Batasunaren eremuan osorik garatu ahal izatea, haren eztabaidak aberastuz, haren legitimitatea indartuz, parte-hartze eta kontrol demokratikoak areagotuz, eta euren ikuspuntu partikularrekin europar eraikuntza-prozesuari ekarpenak eginez;

Honako xedapen hauek HITZARTU DITUZTE, Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari eranskin gisa gehitzeko:

1. ARTIKULUA

LANKIDETZA LEIALAREN PRINTZIPIOA

Lankidetza leialaren printzipioarekin bat etorriz, Batasunak, Estatu kideek eta legegintza-eskumenak dituzten Eskualdeak eta Nazionalitate-konstituzionalek (aurrerantzean, Eskualdeak eta Nazionalitate-konstituzionaleak) elkar errespetatuko dute eta elkarri lagunduko diote Tratatuetatik eratorritako eginkizunak betetzeko zereginean.

2. ARTIKULUA

LEGEKINTZA-ESKUMENAK DITUZTEN ESKUALDE ETA NAZIONALITATE-KONSTITUZIONALEN ERREGISTROA

Dagozkien Estatu kideen konstituzio-ordenamenduetan ezarritako legegintza-eskumenak dituzten eskualdeek Europar Batasunak horretarako sortutako erregistro ofizial batean inskribatuak izateko eskubidea dute.

Erregistro horretan, eta EBk bere Estatuaren identitate nazionala errespetatzeko duen betebeharra betez, konstituzio-identitatearen aitortza barne hartuta (EBTren 4.2. Artikulua), Estatu kide bakoitzaren konstituzio-ordenamenduaren bidez izaera hori aitortuta duten nazionalitateen inskripzioa ere jasoko da.

Protokolo honetako xedapenak aplikagarriak izango dira Erregistro horretan sartuta dauden Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalentzat.

3. ARTIKULUA

1. Euren barneko konstituzio-ordenamenduetan Eskualdeak eta Nazionalitate-konstituzionalak ezartzen dituzten Estatu kideek horien zerrenda jakinaraziko diote Batzordeari.
2. Batzordeak Eskualde eta Nazionalitate-Konstituzional horien erregistro bat sortuko du eta urtero eguneratuko du; erregistro hori Europar Batasunari eta Kontseiluari bidaliko zaie sortu edo eguneratzen denean.
3. Erregistro horrek estatuetakoko barne-ordenamenduaren arabera Eskualde eta Nazionalitate-konstituzional horietako bakoitzari dagozkion legegintza-eskumenaren gaiak jasotzen dituen katalogo zehatz eta eguneratu bat izango du. Katalogoa Batzordeak prestatuko du, Estatu kideetako gobernuen eta tartean dauden Eskualde eta Konstituzio-nazionalitateen lankidetzarekin.
4. Erregistro horretan, Batzordeak Eskualde eta Nazionalitate-konstituzional bakoitzaren biztanle kopurua sartuko du eta urtero eguneratuko du, eta bere lurraldean Batasunaren hizkuntza ofizialen artean agertzen ez den hizkuntza ofizialen bat baldin badago, adierazi egin beharko du.
5. Erregistroa Parlamentuak eta Kontseiluak onartuko dute, legegintza-prozedura arruntaren bidez.
6. Protokolo honetan xedatutakoak ezin izango ditu inola ere murriztu edo okertu Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalek estatu kidearen esparruan Batasunaren funtzionamendurako adostu dituzten eskubideak edo parte hartzeko baldintzak. Kasu horretan, Estatu kideek Adierazpen bat gehitu ahal izango diote Tratatuari, eranskin gisa, Protokolo honek bere Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalei nola eragingo dien zehaztuz.

4. ARTIKULUA

ESKUALDEETAKO LANTALDEA

1. Batzordearen erregistroan inskribatutako Eskualdeek eta Nazionalitate-konstituzionalek batzar iraunkor batean¹ parte hartuko dute Eskualdeetako Lantaldearen barruan, hots, Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalen Batzorde Iraunkorra izeneko batzorde iraunkor batean. Eskualde eta Nazionalitate-konstituzional bakoitzak ordezkari bat izango du.
2. Eskualdeetako Lantaldeak Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalen Batzorde Iraunkorraren kide diren lurraldeen eskumenekoak diren gaien inguruan egiten dituen eta beraren gehiengoaren adostasuna duten irizpenek izaera loteslea izango dute.
3. Eskualdeetako Lantaldearen Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalen Batzorde Iraunkorrak ekintza politiko edo legegileak proposatu ahal izango dizkie Batzordeari, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, euren eskumenekoak diren gaien esparruan.
4. Europako Kontseiluko Presidentzia Eskualdeetako Lantaldearen ordezkaritza batekin bilduko da Europako Kontseiluak prestatzera zuzendutako lurralde-konsulta egituratu eta erregular baten esparruan. Eskualdeetako Lantaldearen ordezkaritza erdialegegintza-eskumenak dituzten Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalen ordezkari osatuta egongo da; ordezkari horiek behar den bezala izendatuko ditu Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalen Batzorde Iraunkorrak.
5. Eskualdeetako Lantaldeari erabateko legitimazio aktiboa aitortuko zaio Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren aurrean (EBFTren 263. Artikulua). Prozedura bat hasteko, beharrezkoa izango da Eskualdeetako Lantaldeko osoko bilkuraren bi herenen gehiengoa izatea, edo Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalen Batzorde Iraunkorraren kideen gehiengoa.

5. ARTIKULUA

BATZORDEA

1. Euren eskumenekoak diren gaietan (Batzordeak prestatutako erregistroaren katalogo zehatzaren arabera), Batzordeak Eskualde eta Nazionalitate-konstituzional horiek kontsultatuko ditu, legegintza-proposamenaren zirriborroa prestatzeko fasean, baita abiatzen diren entzunaldi-faseetan ere.
2. Eskualdeek eta Nazionalitate-konstituzionalek proposamen eta gomendioak egin ahal izango dizkiote Batzordeari, legegintza- edo betearazpen-eskumenak dituzten gaien inguruan, edo euren ustez Batasunaren funtzionamendua hobetu dezaketen alderdien inguruan.
3. Legegintza-proposamenei buruzko informazioa aldi berean jasoko dute parlamentu nazionalek eta eskualdeetako parlamentuek, horrela, ahalik eta denbora gehien izateko proposamenak aztertzeko eta eztabaida demokratiko emankorra errazteko Batasunaren instituzio guztien, Estatuen, Eskualdeen eta Nazionalitate-konstituzionalen artean.

¹ Tratatuak batzorde iraunkorren sorrera ezartzen dute batzuetan; adibidez, EBFTren 71. Artikuluan ezarritakoaren arabera: "Kontseiluan Batzorde iraunkor bat sortuko da barne-segurtasunari buruzko lankidetzaren operatiboa Batasunaren barruan sustatu eta areagotzeko dela bermatzeko xedez.

6. ARTIKULUA

EUROPAKO PARLAMENTUA

- 1.** Eskualdeetako eta Nazionalitate-konstituzionalako parlamentuek iritzi eta gomendioak egin ahal izango dituzte Europako Parlamentua aztertzen ari den legegintza-proiektuei buruz, batez ere, euren eskumenekoak diren gaien eremuan; horretarako, euren iritzi eta gomendio horiek Europako Parlamentuaren Presidentziara helarazi beharko dituzte.
- 2.** Europako Parlamentuaren Batzordeek Eskualdeetako eta Nazionalitate-konstituzionalako parlamentuak sartuko dituzte euren legegintza-proposamenak prestatzeko lanei buruzko kontsultetan, proposamen horiek zuzenean eragiten dieten edo euren eskumenekoak diren gaiak tartean daudenean.
- 3.** Eskualdeetako eta Nazionalitate-konstituzionalako parlamentuak gonbidatuta egongo dira, Europa-, nazio- edo eskualde-mailan, parlamentuen artean ezartzen diren foroetan, alegia, elkarriketarako, koordinaziorako eta jardunbide egokien trukatzearako foroetan, Batasunaren legegintza-prozesuaren kalitatea hobetzeko xedez, izan ere, horrela, Europako demokrazioako parlamentarismoari lagundu ahalko zaio.
- 4.** Europako Parlamentuak eta Eskualdeetako eta Nazionalitate-konstituzionalako Parlamentuek elkar informatuko dute euren programez eta legegintza-egutegiez.

7. ARTIKULUA

BATASUNAREN KONTSEILUA

Batzordeak egindako erregistroaren arabera, Eskualde edo Nazionalitate-konstituzional batek legegintza-eskumenak dituen gaietan:

- a)** Eskualdeak edo Nazionalitate-konstituzionalak batzordeetan, prestatze-lantaldeetan eta formazioetan parte hartuko du, Batasunaren Kontseiluaren Ministroen mailan, beraren eskumenekoak diren gaiak tratatzen dituztenean, Estatu kide bakoitzak adosten duen formularekin. Batzordea arduratuko da parte-hartze hau benetan bermatzeaz, eta gomendioak egin ahal izango dizkie tartean dauden Estatu kideei, legegintza-eskumenak dituzten Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalen parte-hartzea errazteko; era horretan, legimititatea indartzen lagunduko du, instituzioaren eraginkortasuna murriztu gabe.
- b)** Eskualde edo Nazionalitate-konstituzionalak ekarpenak igorri ahal izango dizkio Kontseiluari, bere Estatu kideak COREPERen duen ordezkariaren bidez.
- c)** Legegintza-eskumenak dituen Eskualde edo Nazionalitate-konstituzional batek Estatua ordezkatzu parte har dezakeen arren, barnean adostutako baldintzetan, bere eskumenekoak diren gaiak eztabaidatu edo bozkatzeko ari direnean, horretaz gain, COREPERen eta Kontseiluaren bilerak jarraitu ahal izango ditu, alboko areto batetik. Eskualde edo Nazionalitate-konstituzional bakoitza bere eskualde-gobernuko ordezkari batekin eta laguntzaile batekin bertaratu ahal izango da.

- d)** Legegintza-eskumenen katalogoan jasotako gaibaten inguruko bozketabat egiten denean, bozketahorrek gehiengo kualifikatua eskatzen badu, Eskualdea edo Nazionalitate-konstituzionala ados ez badago bere gobernu nazionalaren ordezkariaren botoaren zentzuarekin, boto horrekin ados ez dagoela jakinarazi ahal izango dio saioko Presidentziari, botoari dagokion puntuan, eta Presidentziak kontuan hartuko du neurria hartzeko beharrezkoa den biztanleria-irizpidea egiaztatzerakoan (EBTren 16.4. Artikulua, EBFTaren 238.2 eta 238.3. Artikuluak), eta, beraz, kasuan kasuko Eskualde edo Nazionalitate-konstituzionalaren biztanle kopurua kenduko dio dagokion Estatuko kidearen biztanle kopuruari. Estatu kidearen administrazio zentralarekin konpartitzen diren edo konkurrenteak diren eskumenen kasuan, berriz, aplikatuko den kantitatea Eskualde edo Nazionalitate-konstituzionalaren biztanleriaren osoaren erdia izango da. Estatu kideak desadostasun kasuetan aplikatu beharreko gaien eta biztanleriaren kantitate zehatzen zerrenda onartuko du, Batzordearen proposamenari erantzunez eta legegintza-eskumenak dituen Eskualde edo Nazionalitate-konstituzionalaren lankidetzarekin.
- e)** Estatu kidearen ordezkariak emandako botoaren zentzuarekin adostasunik ez egoteari dagokionez, legegintza-eskumenak dituen Eskualde edo Nazionalitate-konstituzional batek izaera bereko beste batzuk ordezkatu ahal izango ditu.

8. ARTIKULUA

EBKO JUSTIZIA AUZITEGIA

1. Eskualdeek eta Nazionalitate-konstituzionalek legitimazio aktiboa izango dute EBko Justizia Auzitegira jotzeko, orokorrean, Tratatuak ondo aplikatzen ez direla kontsideratzen dutenean, eta, zehazki, subsidiarotasun eta proportzionaltasun printzipioa behar den bezala aplikatu ez dela kontsideratzen dutenean, euren eskumenei dagokienez.
2. Mekanismo hori aktibatzeko, eskualde-gobernuak bere eskualde-parlamentuaren onarpena lortu beharko du. Horren ostean, Estatu kidearen gobernuak informatuko du.

9. ARTIKULUA

BETEARAZPEN ESKUMENAK

1. Batasunaren egintzak juridikoki lotesleak direnean eta haien betearazpenerako baldintza uniformeak eskatzen direnean, eta Batzordeari edo Kontseiluari betearazpen-eskumenak ematen zaizkienean, EBFTren 291. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Batzordeak kontsultatu beharko ditu legegintza- edo betearazpen-eskumenak dituzten Eskualde edo Nazionalitate-konstituzionalak -kasuan kasuan dagozkionak-, bere proposamena prestatzeko hasierako fasean.
2. Proposamena landuta dagoenean, aldi berean, Europako Parlamentuara eta Kontseilura eta bere eraginpean dauden Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalak bidaliko da. Proposamena tramitatzen den bitartean, Europako Parlamentuari ekarpenak igorri ahal izango dizkiote.
3. Eskualdeek eta Nazionalitate-konstituzionalek kontrol-sisteman ere parte hartuko dute, kasu bakoitzean egokia den moduan.

10. ARTIKULUA

KONSTITUZIO-NAZIONALITATEAK

1. EBFren 223.1. Artikuluan adierazitako prozedura uniformearen printzipio komun bat izango da Batzordearen erregistroan inskribatutako konstituzio-nazionalitateak hautesbarruti propio bat izango duela Estatu kidearen barruan, Europako Parlamenturako hauteskundeetan. Europako Parlamenturako hauteskundeetan, nazionalitate-konstituzionalaren hautesbarrutiaren jarleku kopurua biztanleriaren batezbestekoari dagokion kopurua izango da (Batasunaren osoko biztanleria zati jarlekuen osoko kopurua), gorantz biribilduta (zenbaki osoa, hamarrenik gabe, gehi bat). Nazionalitate-konstituzionalaren barneko pluraltasuna hobeto adierazi ahal izan dadin, hautesbarruti horren barneko hauteskunde-sistema proportzionala izango da, Estatu kideak bestelakorik erabaki ezean.
2. Nazionalitate-konstituzionalak gonbidatuak izango dira Europaren etorkizunaren inguruan antolatzen diren hausnarketa-foro guztietan modu eraginkorrean parte hartzera, hala nola, Europaren Etorkizunari buruzko Konferentziara, bi ordezkariarekin: bata gobernuarena eta bestea parlamentuarena.
3. Nazionalitate-konstituzionalak erabateko parte-hartzea izango du Tratatuak erreformatzeko xedez deitzen diren Konbentzioen lanetan (EBTren 48.3. Artikulua), ordezkari baten bidez.

11. ARTIKULUA

HIZKUNTZA OFIZIALEN AITORTZA ETA ERABILERA LEGEGINTZA-ESKUMENAK DITUZTEN ESKUALDE ETA NAZIONALITATE-KONSTITUZIONALETAN, BATASUNAREN FUNTZIONAMENDUAREN BARRUAN

1. Batzordeak prestatutako Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalen erregistroan inskribatuta egonez gero, Batasunak hizkuntza ofizialtzat hartuko ditu Eskualde eta Nazionalitate-konstituzional horien hizkuntza ofizialak beren lurraldean, estatus hori aurretik ez badute.
2. Batzordeak, Batasunaren kultura- eta hizkuntza-pluraltasuna defendatzeko betebeharra betez, eta kontuan hartuta Estatu kidearen barneko lege-estatusa, nazionalitateen hizkuntzaren ofizialtasuna, eskualde edo nazionalitatearen biztanleria, tartean den hizkuntzaren desagertze-arriskua, Batasuna eraginkorra izateko beharra, barneko funtzio administratibo batzuen kostu/etekin erlazioa, eta kasuan kasuan dagokion Estatu kideari eta Eskualde edo Nazionalitate-konstituzionalari entzun ondoren, dokumentu bat prestatuko du erregistroko inskripzioa egin eta gehienez urtebetera, Eskualde edo Nazionalitate-konstituzionalaren hizkuntza ofizialen erabilera Batasunaren funtzionamenduan guztiz txertatzeko; dokumentu horrek, gainera, inplementaziorako egutegi bat izango du erantsita.
3. Dokumentua Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartu beharko dute.

12. ARTIKULUA

ELKARTZE-PRINTZIPIOA

1. Europar Egitura- eta Inbertsio-funtsen aplikazioa elkarketen bidez antolatuko da, lankidetzaz estua ekarriz agintaritzaz publikoen, eragile ekonomiko eta sozialen eta gizarte zibila nazio-, eskualde- eta toki-mailan ordezkatzeko duten erakundeen artean, eta horrela izango da programaren ziklo osoan, hau da, prestaketan, betearazpenean, jarraipenean eta ebaluazioan.²
2. Protokolo hau betetzeko xedez sortutako erregistroan inskribatuta dauden Eskualdeak eta Nazionalitate-konstituzionalak atxikita geratuko dira Europar Egitura- eta Inbertsio-funtsen aplikazioari.
3. Ikusita elkartze-printzipioak hobetu egin duela Europar Egitura- eta Inbertsio-funtsen eraginkortasuna, eta baita legitimitatea eta parte-hartze demokratikoa ere, eskualdeak eta tokiko botereak sartu izanari esker, Batzordeak proposamenak egin ahal izango dizkie Parlamentuari eta Kontseiluari, printzipio hori Batasunaren beste politika eta eremu batzuetara hedatzeko.

13. ARTIKULUA

MAKROESKUALDE MAILAKO EKIMENAK

Makroeskualde mailako ekimenen gobernantzak ahalbidetuko du Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalek osoko parte-hartze izatea horien funtzionamenduan, bai prestaketa-lanetan eta bai orientazio estrategikoan, erabakiak hartzeko prozesuetan, ekintzen inplementazioan eta kontrolean, euren barneko konstituzio-ordenamenduan eskumenak dituzten alorretan.

13. BIS ARTIKULUA

LANKIDETZA INDARTUAK (EBTREN 20. ARTIKULUA ETA BFTREN III. TITULUA)

Eskualdeek eta Konstituzio-nazionalitateek euren Estatu Kideek onartzen dituzten lankidetzaz indartuetan parte hartu ahal izango dute, euren eskumen-eremuko legegintzako gaiak eta eskumenak badira.

- 2 Ikus: Europar Egitura- eta Inbertsio-funtsen barneko elkartzei buruzko Europar Jokabide Kodeari buruzko Batzordearen 2014ko urtarrilaren 7ko 240/2014 (EB) Erregelamendu delegatuaren bigarren kontuan hartuzkoa. Ikus, halaber, Eskualde Garapeneko Europako Funtzari buruzko xedapen komunak ezartzen dituen Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamendu delegatuaren 14. kontuan hartuzkoa...: "Elkartze-printzipioa Funtsen exekuzioaren funtsezko elementu bat da, maila batzuetako gobernantzaren ikuspegian oinarritzen dena eta honako eragile hauen parte-hartzea bermatzen duena: eskualde, toki eta hiri mailako agintaritzak eta beste agintaritzaz publiko batzuk, gizarte zibila, eta mintzakide ekonomiko eta sozialak, eta, hala badagokio, ikerketa-erakundeak eta unibertsitateak. Elkarketa antolatzerakoan jarraitasuna egon dadin, Batzordearen 240/2014 (EB) Erregelamendu Delegatuaren bidez ezarritako Europar Jokabide Kodeak (aurrerantzean, "Elkarketei buruzko Europar Jokabide Kodea") Europar Egitura- eta Inbertsio-funtsek sostengatutako elkartze-akordio eta -programen esparruan egindako elkartzei buruz dioena aplikatzen jarraitu beharko zaie Funtsei."

14. ARTIKULUA

EBREN AGENTZIA DESZENTRALIZATUAK

1. Eskualdeetako Lantaldeko Eskualde eta Konstituzio-nazionalitateen Batzorde Iraunkorrak eskatu ahal izango du parte hartzea, ordezkari batekin, euren eskumen-arloko gaiak jorratzen dituzten europar agentzien gobernu-organoan (*management board*).
2. Batzordeak gai horren inguruko txosten bat prestatuko du, eta modu egokian arrazoitu beharko du horri buruz hartzen duen erabakia.

15. ARTIKULUA

ESTATU KIDEEN POLITIKEN KOORDINAZIOA

1. Politiken koordinaziora zuzendutako ekimenen esparruan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 5. Artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Kontseiluak eta Batzordeak kontuan hartuko dituzte koordinazioaren xede diren gaien inguruko legegintza- eta betearazpen-eskumenak dituzten Eskualde eta Nazionalitate-konstituzionalen posizioak, bai helburuak ezartzerakoan eta bai emaitzen neurketarako eta hartutako neurrien jarraipenerako mekanismoak ezartzerakoan.
2. Koordinazio-ekimen bakoitzean, kasuan kasuko Eskualde eta Konstituzio-nazionalitateei entzun ondoren, Batzordeak dokumentu bat prestatuko du proposamenekin, Kontseiluak onartutako koordinazioaren lan- eta gainbegiratze-eskemaren barruan parte hartu ahal izan dezaten.

16. ARTIKULUA

BATASUNAREN FUNTSEZKO BALIOAK

Noizbait antzematen bada, EBTren 7.2. Artikulua aplikatuz, Eskualde edo Nazionalitate-konstituzional batek modu larrian eta jarraituan hautsi dituela EBTren 2. Artikuluan jasotako balioak, Kontseiluak, 7.3. Artikuluan ezarritako prozeduraz baliatuz, indarrik gabe utzi ahal izango ditu Tratatuetan eta Protokolo honetan jasotako eskubide jakin batzuk, Estatu kidearen barruan bereizita, kasuan kasuko Eskualde edo Nazionalitatearen lurraldera mugatuz.

